


EAEn, eraikuntzaren kostuek 2018ko apirilean ez dute aldakuntzarik izan aurreko hilabetearekiko (% 0,0)

Aurreko urtearen aldean —2018ko apirilaren eta 2017ko apirilaren artean konparatuta—, kostuek % 1,9 egin zuten gora.

EAEn, eraikuntzaren kostu-indizea egonkor mantendu zen (% 0,0) 2018ko apirilean aurreko hilabetearekiko. Urte arteko tasak, berriz, % 1,9 egin zuen gora apirilean, EUSTATEk emandako datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilabeteari dagokionez, ez eskulanaren kostuak, ezta lehengaien kostuak ere ez zuten aldakuntzarik izan (% 0,0).

Lehengaien barruan, eraikuntzaren azpisektoreak % 0,1eko jaitsiera izan du lehengaien kostuan. Obra zibilaren azpisektorean, ordea, % 0,4 igo da. Urte arteko bilakaeran, bi azpisektore horiek zeinu bera dute, baina bestelako intentsitatea. Izan ere, eraikuntzako

lehengaien kostuak % 1,8 igo dira eta obra zibileko lehengaienek, berriz, % 2,7 egin dute gora.

2018ko apirilean (2017ko apirilarekiko) igoera handienak izan dituzten sektorean kontsumitutako lehengaien prezioen artean, honako hauenak nabarmentzen dira: metalurgia (% 7,2), petrolioaren fintzea (% 6,0) eta industria kimikoa (% 2,9). Aitzitik, azken hamabi hilabeteetan lehengaien prezioetan murrizketa handienak izan dituzten sektoreen artean, honako hauek daude: energia elektrikoa eta gasa (% 2,5 egin du behera), kautxua eta plastikoa (% 0,5 jaitsi da) eta zuraren industria (% 0,2ko jaitsiera izan du).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2018ko Apirila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	103,7	0,0	1,9	1,4
Eraikinak	103,7	0,0	1,8	1,3
Obra zibila	103,8	0,3	2,5	1,6
LEHENGAI	102,0	0,0	2,0	1,2
Eraikinak	102,0	-0,1	1,8	1,2
Obra zibila	102,0	0,4	2,7	1,6
LAN-ESKUA	109,8	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2010=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62